



ARANTZAKO UDALA

ARANTZAKO PILOTALEKUA BIRGAITZEKO OBRA KONTRATUA

-B GUTUNAZALA IREKITZEA (FORMULA BIDEZ KUANTIFIKAGARRIA DEN DOKUMENTAZIO)-

- **TOKIA:** Arantzako Herriko Etxea.
- **EGUNA:** 2026-04-22
- **ORDUA:** 14:55
- **KONTRATUAREN XEDEA:** Arantzako pilotalekua birgaitzeko obra kontratua.
- **PROZEDURA:** Irekia.
- **TRAMITAZIOA:** Arrunta.
- **UNITATE KUDEATZAILEA:** Nagore Madariaga Iriarte, Arantzako Udaleko idazkaria.

Arantzan, 2026ko apirilaren 22an eguerdiko 14:55ean Arantzako Herriko Etxean egindako barne ekitaldian, Unitate Kudeatzaileak apirilaren 3ko 50/2026 Alkate Ebazpen bidez onartutako plegu arautzailean xedaturiko "Arantzako pilotalekua birgaitzeko obra kontratua" lizitazioaren izapideekin jarraitu du.

Jarraiki, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen (hemendik aitzin KPFL) 97. artikuluan xedaturikoaren arabera, hemen adierazitako enpresak aurkezturiko B gutunazala ireki eta bertan jasotako dokumentazioa aztertu da. Lortutako puntuazioa ondorengoa izan da:

ENPRESA IZENA:	IFK ZENBAKIA:	II. ERANSKINA – ESKAINZA EKONOMIKOA		III. ERANSKINA – GIZARTE IRIZPIDEAK			GUZIRA (max. 100)
		Eskaintza	Puntuazioa (max. 90)	Pertsona zk.	Ordu zk. bakoitzari	Puntuazioa (max. 10)	
I.M. ARRIXKO IGELTSERITZA, S.L.	B71143911	42.402,35	90,00	4	10	10	100,00

Horrela bada, plegu arautzaileko 15. klausulan xedaturikoaren arabera, I.M. ARRIXKO IGELTSERITZA, S.L.ri lizitatzailerari, hura izan batira puntuazio altuena jaso dutenak, jakinarazpena egin eta 7 EGUN NATURALEKO EPEAN, aipaturiko klausulan xedaturiko dokumentazio aurkeztea errekeritzen zaio.



ARANTZAKO UDALA

Behin agiriak aurkeztu eta Unitate Kudeatzaileak egiaztatu ostean, haren izenean egingen da esleipen proposamena.

Aztergai gehiagorik gabe, horri buruzko txosten hau idatzi da.

Eta horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, honako hau sinatzen dut.

Arantzan, sinadura digitalean adierazitako datan.

**UNITATE KUDEATZAILEA,
IDAZKARIA,**

Nagore Madariaga Iriarte